

AURKEZPENA

Gu bizi garen herrietan eta inguruetan Crossfit kirola praktikatzeko baliabide falta nabarmena nabaritu dugu, izan ere, gure irakaslea kirol hau inguruan non lantzen zen galdezka hurbildu zitzaigun beste zenbait lagunekin batera hau praktikatzeko intentzioa zuelako. Hori dela eta, arazo honi konponbidea ematea erabaki dugu, ez dugulako aukerarik kirol hau praktikatzeko nahiko urruti geratzen zaigun herri batera joan gabe, adibidez Zarautzera. Gainera gaur egun, crossfita indarra hartzen ari den kirola da eta izugarritzko gorakada eduki du azken urte hauetan. Gaur egun modan dagoen kirol bat dela esan dezakegu. Beraz, falta nabarrituta eta baldintza hauek guztiak kontuan hartuta, ideia ezin hobea iruditu zaigu guk geuk gimnasio bat sortzea, bai herritarrei aukera bat emateko eta baita guk geure negozio propioa abian jartzeko ere.

Proiektuaren sortzaileak Mikel Aiastui, Asier Martinez, Oier Narraspe eta Unax Elorza izan gara. Gu Urretxu Zumarraga Ikastolako lehenengo batxilergoko ikasleak gara. Proiektu honekin gure herriari onura bat eskaini nahi diogu kirol arloan. Gure proiektuaren izena "Hiru" izango da, eta logoa berriz, "3" zenbaki bat.



Horregatik, gure helburua herrian aipatutako kirol honetara bereziki egokitzen den gimnasio bat sortzea izango da gure herrietako biztanleei kirola egiteko aukera berri bat eskainiz. Honek gainera, gure herrira kirol berri bat ekartzea eragingo du. Era berean, herriko biztanleriaren artean kirola bultzatzeko asmoa ere badugu. Gure negozio sistema honek ondo funtzionatuko balu eta errentagarria aterako balitz, Crossfita praktikatzeko aukerarik ez duten herrietan gurean egin dugun bezalako gimnasio bat eraikitzen saiatuko ginbateke. Beti ere, beste herri batzuetako biztanleei ere erraztasunak eskaintzeko helburuarekin.